Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Espediente zk.:	2022IKTO0002
Azalpena:	Astigarrragako HAPOko UEU 8.2 Agui eremuko euri-uren eta ur beltzen saneamendu-sareak konpontzea

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA AGUIko SANEAMENDU-SAREAK KONPONTZEKO OBRAK KONTRATATZEKO, IZAPIDETZE ARRUNTAREN ETA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ

I.- XEDEA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

1. KLAUSULA. KONTRATUAREN XEDEA ETA KALIFIKAZIOA

Kontratuaren xedea da Astigarragako HAPOko 8.2 EUUI eremuko euri-uren eta ur beltzen saneamendu-sareak konpontzeko obrak egitea eta urbanizazioa egungo egoeran jartzea. Obra horiek udalak subsidiarioki egikaritzen ditu, sareak tokiko gobernu-batzarrak 2018ko uztailaren 23an onartutako urbanizazio-proiektura egokitzeko.

Obra horien egikaritzea LBR ingernieriak idatzitako "*Proyecto de Reparació*n de Redes de Saneamiento del ámbito U.E.U. 8.2 AGUI en Astigarraga, Gipuzkoa*"* izeneko obra-proiektuan jasotako zehaztapenetara egokituko da.

Kontratu horri CPV hauek dagozkio:
• 45232410-9 (saneamendu-obrak),
• 45233251-3 (Birzolatze-lanak)

2. KLAUSULA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Definitutako kontratuak obren administrazio-kontratuaren kalifikazioa du, Sektore Publikoko eta administrazioko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean SPKL) 17. artikuluak ezartzen duenez, eta izaera administratiboa, SPKLren 25. artikuluaren arabera.

Obra-proiektuak osatzen duten dokumentu guztiak, nahiz administrazio-klausula partikularren agiriak kontratu-izaera dute. Hori horrela, agiri horietan ezarritakoaren mende geratuko dira espresuki alderdiak.

Agiri horietan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauetan xedatuta dagoenak arautuko du kontratua:

1- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB)

eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egin da Espainiako ordenamendu juridikora.

2- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari aurka egiten ez dioten guztian eta horren xedapen indargabetzaileak ukitzen ez duen guztian.

3.- 32/2006 Legea, urriaren 18koa, Eraikuntza Sektorearen azpikontratazioa arautzen duena, eta garatzen duen 1109/2007 Errege Dekretua.

4.- Bidezko bada, 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-obren gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena.

5.- Bidezko bada, 209/2014 Dekretua, urriaren 28koa, eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duena.

6. Estatuko zein Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazioa arautzeari dagokionez bakoitzaren esparruan aplikatzekoak diren gainerako xedapen guztiak.

7.- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

3. KLAUSULA. INFORMAZIOA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILEAN SARTZEKO MODUA.

Lizitazio hau erregulazio harmonizatuari lotuta ez dagoenez, lizitazio-iragarkia Astigarragako Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Eusko Jaurlaritzaren kontratazio publikoaren plataforman kokatua dagoena.

SPKLaren 63. artikuluaren arabera, ondore horietarako beharrezko dokumentazioaren bitartez kontratu-jarduerarako sarbide publikoa eta gardentasuna ziurtatzeko helburuz, ondoren adierazten den helbidearen bitartez egin daiteke Astigarragako Udalaren kontratatzailearen profilerako sarbideko publikoa: http://www.astigarraga.eus/eu/kontratatzailearen-profila-

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 138.3 artikuluak aipatzen duen informazio osagarria edo gehigarria eskatu behar denean, administrazio kontratatzaileak gehienez ere 6 egun naturaleko epean eman beharko du informazio hori eskaintzak aurkezteko finkatutako mugaren aurretik, betiere eskari hori data hura baino gutxienez 12 egun

natural lehenago aurkezten bada. Honako helbide elektroniko honetan egingo da eskaera hori: obraketazerbitzuak@astigarraga.eus

Eskatutako azalpenak kontratatzailearen dagokion profilean argitaratzen badira, erantzunak lotesleak izango dira.

4. KLAUSULA. JAKINARAZPENAK.

Bitarteko elektronikoak erabiliko dira jakinarazpen eta komunikazioetarako, kontratatzailearen profilean argitaratuta zein lizitatzaileak emandako helbide elektronikora jakinarazpena bidalita, edo jakinarazpen elektronikoz udalaren egoitza elektronikoaren bidez (http://astigarraga.eus/eu/tramiteak)

5. KLAUSULA. KONTRATAZIO-ORGANOA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean xedatutakoaren arabera, alkatea da kontratazio-organoa, zeinak gaur egun delegatuta dituen —besteak beste— mota honetako kontratuak tokiko gobernu-batzarrean.

Kontratazio Mahaiak emango dio laguntza kontratazio-organoari, eta egoki iritzitako aholkularitza teknikoa izango du.

6. KLAUSULA. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia honela osatuta egongo da.

- Lehendakaria: alkatea, Xabier Urdangarin Lasa; eta ordezkoa, Esti Neira Martinez, zinegotzia.
- mahaikideak:
    - udal idazkaria. Kontxi Urdampilleta Santamaria
    - udal kontuhartzailea. Amaia Bengoetxea Arrozpide
- Mahaiko idazkaria: idazkaritzako administraria.

Mahaiaren bileretara udal arkitekto teknikoa bertaratuko da, aholkulari gisa, eta hitza izango du baina botorik ez.

II.- KONTRATUA

7. KLAUSULA. AURREIKUSITAKO BALIOA.

Kontratuaren aurreikusitako balioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 101. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ezarri dena, 75.340,82 euro da (BEZik gabe).

8. KLAUSULA.- LIZITAZIO-AURREKONTUA

Lizitazioaren gehienezko aurrekontua 91.162,39 eurokoa da (BEZa barne), honela banakatuta:

- Zuzeneko kostuak: proiektuan adierazitako exekuzio-aurrekontu materiala: 63.311,61 euro.
- Zeharkako kostuak: proiektuan adierazitako gastu orokorrak eta mozkin industriala: 12.029,21 euro
- Bestelako balizko kostuak: ez daude
- BEZa (% 21): 15.821,57 euro.

Prezio horietan barruan sartutzat jotzen dira kontratatutako prestazioak normaltasunez betetzeko enpresa esleipendunak egin beharreko gastu guztiak (hala nola gastu orokorrak, finantza-gastuak, etekinak, aseguruak, garraioak eta joan-etorriak, bere teknikarien ordain-sariak, egiaztatze- eta enkargu-gastuak, tasak, lizentziak, bisatuak eta era guztietako zergak –udal, probintzia, autonomia erkidego zein estatu mailakoak–.

Zenbateko horiek guztiak beherantz hobetu ahalko dituzte lizitatzaileek.

9. KLAUSULA.- FINANTZIAZIOA

Kontratu honen zenbatekoari aurre egiteko aski diru dago aurtengo aurrekontuaren kontu-sail honetan: 1.0500.601.01.450.00.2021 (3350)

10. KLAUSULA.- ORDAINKETA ERA

Obra-proiektuan eta, hala badagokio, obra-zuzendariak idatziz emandako aginduen arabera egiten dituen obrak bakarrik ordainduko zaizkio kontratistari. Ondorioz, obra-proiektuan kontsignatu gabe egonik egiten dituen obra-unitateen kopuruak ez du balioko inolako erreklamaziorik egiteko oinarri gisa.

Ordainketa bideratzeko, hileko lehen 10 egunetan, obra zuzendariak aurreko hileko lan ziurtagiriak prestatuko ditu, epe horretan egindako obrak jasoaz. Horien ordainketa

kontura egindako ordainketen izaera edukiko dute, azken neurketen arabera zuzendu eta aldatu daitezkeenak, eta ez du esan nahi jasotzen dituen obrak onartu edo hartu direla.

Ordainketak 30 eguneko epean egingo dira, faktura eta dagokion ziurtagiria udal-erregistroan bitarteko telematikoen bidez aurkeztu ondoren.

11. KLAUSULA. KONTRATUAREN IRAUPENA.

Obra gauzatzeko epea ez da 6 ASTETIK gorakoa izango.

Funtsezko kontratu-betebeharra da kontratuaren iraupena eta penalizazioak finkatuko dira epeak ez betetzeagatik.

12. KLAUSULA. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honen izaera dela eta, ezin izango da kontratuaren prezioen berrikuspenik egin kontratuak indarrean dirauen bitartean.

III.- LIZITATZAILEA

13. KLAUSULA. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke kontratu honen esleipendun, Espainiakoak nahiz atzerritarrak izan, beren izenean edo aldi baterako enpresa-elkarte gisa, baldin eta jarduteko erabateko gaitasuna badute, Administrazioarekin kontratuak egiteko debeku edo bateraezintasunik ez badute (2017ko SPKLren 85. artikulua) eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen badute.

Gainera, pertsona fisikoak edo juridikoak izan, enpresa esleipendunen helburu edo jarduerak harreman zuzena izan behar du kontratuaren xedearekin, eta haien antolaketan elementu pertsonal eta material nahikoak egon behar dute kontratua behar bezala gauzatu ahal izateko.

Halaber, lizitatzaileek kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa eskaintzeko beharrezkoa den enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala izan behar dute.

Europako Erkidegokoak ez diren atzerriko enpresek 2017ko SPKLren 68. artikuluan ageri diren eskakizunak ere bete behar dituzte.

14. KLAUSULA. GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

Ondorengo alderdiak egiaztatu beharko dituzte lizitatzaileek:

1.- - Jarduteko gaitasun osoa dutela.

Pertsona juridikoa bada, kontratuaren prestazioak beren estatutuen edo eratze-arauen arabera berezko dituzten helburu, xede edo jarduera-esparruen barruan sartzen direla.

Espainiarrak ez diren enpresen jarduteko gaitasuna Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan ezarritako moduan egiaztatu beharko da.

2.- Ez dutela betetzen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatzeko debekua dakarren inguruabarrik.

3.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela.

4.- **Kaudimen ekonomiko eta finantzario eta kaudimen tekniko edo profesional egokia dutela.**

Kaudimen hori honako bitarteko hauen arteko edozeinen bidez egituratuko da:

- **honako sailkapen hau indarrean duela egiaztatuta (biak):**

  E taldea: hidraulikoak
  1 azpitaldea: hornidurak eta saneamenduak.
  1. kategoria

  G taldea: bideak eta pistak
  6 azpitaldea: kualifikazio espezifikorik gabeko bide-obrak.
  1. kategoria

- **honako dokumentazio hau aurkeztuta:**

  a.- Kaudimen ekonomiko-finantzarioa egiaztatzeko arrisku profesionalengatiko 150.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru bat dagoela egiaztatzen duen frogagiri edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko da.

  b.- Azken 5 urteetan egindako lan nagusien zerrenda aurkeztuko da kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko, lan horien zenbatekoa, datak eta egikaritzapen-lekua zerrendan bilduta, baita organo eskudunak emandako edo bisatutako ziurtagiriak ere, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean edo hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez edo,

ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren deklarazio baten edo egikaritutako obrengatik egindako fakturen kopia baten bidez.

Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatuta geratuko da aurkeztutako dokumentaziotik egiaztatzen bada adierazitako aldian egkaritu direla, kontratu honen lizitazio-zenbatekoaz edo handiagokogo, 3 lan saneamenedu-sareak konpontzeko eta urbanizazioarenak.

Enpresa sortu berriek – Hau da, bost urtetik beherako antzinatasuna dutenek – SPKLren 88. artikuluaren 1. zenbakiko b) letratik f) letrara bitartean ezarritako edozein bitartekoren bidez egiaztatu ahal izango dute kaudimena.

15. KLAUSULA. KAUDIMENA KANPOKO BALIABIDEEKIN OSATZEA.

SPKLren 75.1 artikuluarekin bat etorriz, enpresaburuak beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak balia ditzake, haiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta frogatzen badu kontratuaren egikaritzapen osoan zehar kaudimen eta baliabide horiek efektiboki edukiko dituela, eta baliatzen duen enpresa kontratatzeko debekuaren eraginpean ez badago.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu nahi duten lizitatzaileek hala adierazi beharko dute A gutun-azalean sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean (I. eranskina), bai eta II. eranskina bete ere, zeina A gutun-azalean ere sartu beharko dena.

IV.- ESLEITZEKO PROZEDURA

16. KLAUSULA. Esleipenaren tramitazioa eta prozedura

Kontratua prozedura ireki arrunt bidez esleituko da.

Proposamenak baloratzeko eta kontratua esleitzeko, irizpide ugari erabiliko da, kalitate-prezio erlaziorik onenaren arabera. Kalitate-prezio erlazio hori kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera ebaluatuko da, SPKLaren 145. artikuluaren eta honako Plegu Administratiboaren edukiaren arabera.

17. KLAUSULA. PUBLIZITATEA.

Administrazio Publikoen kontratuak esleitzeko lizitazio-iragarkia Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataforman kokatuta dagoen Astigarragako Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, eta bertan sartzeko 3. klausulan xedatzen dena kontuan izango da.

18. KLAUSULA. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.

18.1.- ESLEIPENERAKO OINARRITZAT HARTUKO DIREN IRIZPIDEAK

Honako hauek dira lehiaketa esleitzeko oinarritzat balio behar duten irizpideak:

	ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK:	Puntuak	Zer gutun-azaletan egiaztatzen den
1	Proposamen ekonomikoa	0-60	C gutun-azala
2	Lana egikaritzeko modua, bitarteko materialak eta planinga.	0-40	B gutun-azala

1.- Proposamen ekonomikoa: 0-60 puntu

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoak puntuatuko dira interpolazio lineala erabiliz, P1 (Baja maximoa, Puntuazio maximoa) eta P2 (Baja zero, Puntuazio minimoa) puntuen artean egindako lerroaren barruan. Honako hauek dira puntuak:

P1 – Eskaintzarik ekonomikoena (Baja maximoa), puntuazio maximoa jasoko duena (Pmax puntu).
P2 – Lizitazio motari dagokio eta puntuazio minimoa emango zaio, formula honen arabera:

Pmin = Pmax x (1-Bmax)
(Bmax = Baja maximoa)

Baja (B) da lizitazio mota ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazio mota. Lehen aipatutako lerroa egiteko, onartutako oinarri-eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Hasiera batean, **neurriz kanpokotzat edo ezohikotzat** hartuko dira onartutako eskaintzen prezio guztien neurri aritmetikoa baino txikiagoak diren eskaintzak, 10 unitate baino txikiagoak direnak, eta eskaintzak halakotzat hartzeko, ustez eskaintzaren barruan dauden lizitatzaile guztiei eskatu beharko zaie informazioa aurretik, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

2.- Proposamen teknikoa: 0-40 puntu.

Alderdi hauek baloratuko dira:

- Puntu kritikoen laburpena

- Inguruaren azterketa edo obraren ezarpena: obraren inguruaren ezagutza baloratuko da, bai eta bere eragin-eremuaren funtzionamendu normalean obrari eragin diezazkiokeen eragozpenak eta afekzioak minimizatzeko proposamenak ere.

- Lan-programa edo obra-plana eta obraren antolamendua, obra gauzatzeko plangintza edo lan-sistema barne.

- Kontratua gauzatzeko erabiliko diren baliabide materialak eta giza baliabideak.

18.2.- ESLEIPENERAKO LEHENTASUNAKBERDINKETA GERTATZEN DENEAN

Kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, ondorengo irizpide sozialak ordenan aplikatuz ebatziko da berdinketa, eskaintzak aurkezteko epearen amaierako uneari erreferentzia eginez, betiere:

- Ezintasunak dituzten langileen edo gizartetik baztertuak izateko egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa dutenak enpresa bakoitzaren langilezerrendan; berdinketa badago, langileen zerrendan ezintasunak dituzten langile finko gehiena dituena hartuko da aintzat, edota inklusio bidean diren langileen kopuru handiena duena.

- Enpresa bakoitzeko langileen zerrendan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.

- Enpresa bakoitzeko langile-zerrendan emakumezko langileen ehuneko handiena duena.

- Zozketa egingo da, aurreko irizpide horiek aplikatuta berdinketa desegiten ez bada.

Berdinketa hausteko irizpideen egiaztagiriak berdinketa gertatzen denean aurkez ditzakete lizitatzaileek, ez aurretik.

19. KLAUSULA.- BERMEAK

Behin-behineko bermea: Lizitazio honetan parte hartzeko, ez da behin-behineko bermea jartzerik eskatzen.

Behin betiko bermea: Kontratu Legearen 107.3 artikuluari jarraikiz, hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, kontratuaren esleipendunak lizitazio prezioaren % 5eko behin betiko bermea jarri behar du.

Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, kontratuaren esleipenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita, Udal Diruzaintzan jarri beharko da; eskudirutan jarriko da edo kontratu legearen 108. artikuluan xedatzen den edozein baliabide erabiliz.

Behin betiko bermea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei aurre egingo dio. Kontzeptu horien artean jasota dago kontratistak kontratuaren xede diren prestazioen egikaritze okerraren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galerak ordaintzeko betebeharra (SPKLren 196. artikuluan aurreikusten dena) ez betetzea.

Kontratu-aldaketaren ondorioz kontratuaren prezioa aldatu egin bada, bermea egokitu egingo da enpresaburuari aldatzeko erabakia jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita 15 eguneko epean, betiere aldaketaren ondoriozko kontratuaren prezio berriarekiko proportzio egokia izan dezan, eta hala egin ezean kontratua suntsiarazteko kausa izan daiteke. Zehapenak edo kalte-ordainketak gauzatzen diren datatik zenbatzen hasi eta epe berdinean, esleipendunak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan, eta hala egin ezean kontratua suntsiarazteko kausa izan daiteke. Epe berean, zigorrak edo kalte-ordainak ordaintzen direnetik zenbatzen hasita, esleipendunak bermea birjarri edo zabaldu beharko du dagokion zenbatekoan; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Bermeak itzultzeko, kontratu legearen 111 artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan, eta kontratuaren likidazioa onartu ondoren eta bermearen epea igaro ondoren antolatuko da, beti ere erantzukizunik ez badago.

V.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

20. KLAUSULA. PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK.

1. Lizitatzaile bakoitzak ezingo du aurkeztu proposamen bat baino gehiago. Ezingo du beste batzuekin aldi baterako elkartuta prestatutako proposamenik ere izenpetu bere aldetik proposamenen bat aurkeztu badu, edo ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan azaldu. Arau horiek urratzen dituen lizitatzaileak izenpetutako proposamen guztiak baztertuko dira.

2. Proposamenak aurkezteak berekin dakar plegu honen zein preskripzio teknikoen pleguaren klausuletan jasotzen den eduki osoa baldintzarik gabe onartzea, inolako salbuespenik edo erresalburik gabe.

3. Ez da onartuko eskaintza argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, hutsak edo ezabaketak dituen proposamenik.

4.- **lizitatzaileen datuen babesari buruzko informazioa**:

4.1. Kontratua gauzatuko duten langileen buruz udalari ematen zaizkion datu pertsonalak, bai pertsona fisikoen kasuan, bai pertsona juridiko baten ordezkarien kasuan, bai

curriculumari eta lan-arloko beste batzuei dagokienez, Astigarragako Udalak tratatuko ditu, datuen tratamenduaren arduradun gisa.

4.2. Udalean tratatutako ditu3en datuak interesdunak berak edo bere legezko ordezkariak, administrazio publikoek eta erregistro publikoek emandakoak dira.

4.3. Tratatzen diren datuen kategoriak hauek dira: identifikazio-datuak, identifikazio-kodeak edo -gakoak, posta-helbideak edo helbide elektronikoak, merkataritza-informazioa eta datu ekonomikoak.

4.4. Datuak tratatzeko legitimazioa kontratuaren esleipena kudeaketa datza, kontratua formalizatu eta gauzatzeko, adjudikaziodunari esleitzen bazaio.

4.5. Datuak tratatzeko lege-oinarria Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean dago.

4.6. Informazioaren bilketa eta tratamenduaren xedea da, hala ere, kontratua hautatze edo esleitzeko prozesuan egokia den balorazioa, baita – Esleipendunak ateratzen den kasuetan – Udalarekin kontratu harremana mantentzeko, alderdi ekonomikoak eta teknikariek ondoriozko, eta kontratatutako lanen kontrola eta, hala badagokio, horien inguruko intzientziei buruzko informazioa helarazteko.

4.7. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduarekin (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorriz, interesdunek beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, ahazteko, aurka egiteko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, idazki bat bidali beharko dute Udalera, NANarekin batera.

21. KLAUSULA. PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Proposamenak aurkeztuko dira Udalaren erregistro telematikoan ((www.astigarraga.eus/eu/tramiteak), lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasi eta 28 egutegi-eguneko epearen barruan.

Ez dira onartuko adierazitako modu, epe eta lekuan aurkezten ez diren proposamenak.

22. KLAUSULA.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzaileek honako dokumentazio honen arabera aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak:

A GUTUN-AZALA	DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA
B GUTUN-AZALA	PROPOSAMEN TEKNIKOA
C GUTUN-AZALA	ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA BALIOZKO JUDIZIOEN MENPE EZ DAUDEN IRIZPIDEAK

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko du udaletxeko erregistroan, eta proposamena erregistratzen denean honako hau adierazi beharko da kontzeptuan: AGUIko SANEAMENDUA KONPONTZEKO LANAK**.**

Gutun-azal bakoitzeko dokumentazioa “pdf”·dokumentu batean sartu beharko da, eta ireki ahal izateko pasahitz bat ezarri daiteke; kontratazio-mahaiari pasahitz hori adierazi beharko zaio gutun-azala irekitzeko egintza publikoa hasi baino 5 minutu lehenago. Kartazalak irekitzeko gako hori ez bada ematen, edo emandakoak ez badu balio dokumentua irekitzeko, lizitazio prozesutik kanpo geldituko da lizitatatzailea.

Ondoren adierazten den dokumentazioa jasoko beharko du gutun-azal bakoitzak:

A. Gutun-azala- <u>Dokumentazio Administratiboa</u>:

1. Kontratazioko europar agiri bakarraren inprimakiaren eredua beteko duen erantzukizunpeko adierazpena zeina ondoko helbide elektronikoan eskuragarri dagoena https://ec.europa.eu/tools/espd/filter?lang=es edo Plegu honetan jasotzen den erantzukizunpeko adierazpena (I Eranskina); adierazpen hori sinatuta egon behar da, eta dagokion identifikazioarekin, eta honako hau adierazi behar du lizitatzaileak:

a. Dagokion sailkapena duela, edo exijitzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela, kontrataziorako europar agiri bakarraren inprimaki bakarraren arabera plegu hauek ezartzen dituen baldintzetan.

b.- Pertsona juridikoa bada, **s**ozietatea baliozko moduan eratuta dagoela eta, sozietatearen helburuaren arabera, lizitaziora aurkez daitekeela, eta adierazpenaren sinatzaileak dagokion ordezkagarritasuna duela proposamena aurkezteko.

c. Bere kabuz edo hedapenez kontratatzeko debekurik ez duela SPKLaren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz.

2. Enpresariak, SPKLaren 75. Artikuluaren arabera, beste enpresa batzuen kaudimenera edo bitartekoetara joko balu, horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpena

aurkeztu beharko dute, eta adierazpen horretan kasu horietarako beharrezko informazioa jaso beharko da, kontrataziorako europar agiri bakarraren inprimaki normalizatuaren arabera (II. Eranskina).

3.- Jakinarazpenak egiteko posta elektroniko helbide bat.

4. Hainbat enpresari aldi baterako enpresa-elkarte batean elkartuta aurkezten badira, enpresa-elkarte horretan parte hartzen duen enpresa bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztu beharko da, eta adierazpen horietan kasu horietarako kontrataziorako europar agiri bakarraren inprimakian eskatzen den informazioa jaso beharko da (III. Eranskina).

Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpenez gain, aldi baterako enpresa-elkarteetan aurkezten diren enpresariek betebeharrak solidarioki bete beharko dituzte, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu bakarra izendatu beharko dute, eskubideak erabiltzeko eta kontratuaren ondoriozko betebeharrak kontratua deuseztatu bitartean betetzeko behar adinako ahalordeak dituena; horrez gain, ahalorde mankomunatuak ere egon daitezke, zenbateko handiko kobrantza eta ordainketetarako eman ditzaketenak. Halaber, enpresa-elkartea eratzen dutenen izenak eta inguruabarrak, eta horietako bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dute, bai eta kontratuaren esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere.

5. Lehenengo puntuan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek adierazpena aurkeztuko dute, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla esanez, eta, hala balegokio, dagokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.

Kontratazio mahaiak frogagiri guztiak eta batzuk aurkez ditzatela eskatu ahal izango die lizitatzaileei, adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak daudenean, prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa denean eta, nolanahi ere, kontratua esleitu baino lehen.

Aurreko ataletan aipatutako gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari dagozkion inguruabarrak eskaintzak aurkezteko epemugan bete beharko dira, bai eta kontratua formalizatzen den unean ere.

B gutun-azala.- Proposamen Teknikoa:

Proposamen tekniko bat aurkeztu beharko da 18. klausulan adierazitako esleipen-irizpideen arabera baloratuko diren alderdiei buruz. Proposamen horretan, gutxienez, honako hauek zehaztuko dira:

1.- Puntu kritikoen laburpena: obrak gauzatzeko kontuan hartu beharreko baldintzatzaile nagusiak zerrendatuko dira; eta mugarri garrantzitsuenak zehaztuko dira, lanak egiteko garaian atzerapenak edo arazoak edo bestelako funtsezko faktoreak eragin ditzaketenak.

2.- inguruaren azterketa edo obraren ezarpena, eta, bereziki, planteatutako hobekuntzak, obrak bere eragin-eremuaren funtzionamendu normalean izan ditzakeen eragozpenak eta eraginak minimizatzeko.

Garrantzi berezia emango zaio obren eraginpeko eremuetako bizilagunei eta erabiltzaileei ahalik eta enbarazu gutxien egiteko planteamenduari, etxebizitzen irisgarritasuna bermatzeari, aparkalekuak izateko aukera emateari eta lanak azkarrago eta eraginkortasun handiagoz egitea lortzeari.

3.- lan-programa edo obra-plana eta obraren antolamendua, obra gauzatzeko plangintza barne.

Honako hauek zehaztu beharko dira: ezarpena, obra-faseka banatzea, jardueren definizioa, haien arteko erlazioak eta sekuentziak, eta lan nagusietarako azpikontratatutako enpresen zerrenda.

Kronograma bat ere idatziko da, obraren faseak zerrendatuz, eta zeregin kritikoak adieraziko dira, bai eta errendimenduak justifikatzeko taula ere.

4.- Obrara atxikituko diren baliabide materialak: atal honetan jaso beharko da:

• Obrak egiteko erabiliko diren makinen, bitarteko osagarrien, instalazioen eta ekipoen zerrenda, haien marka, modeloa, potentzia eta edukiera adierazita. Horretaz guztiaz, gaur egun zer dagoen eta, esleituz gero, zer eskuratzea edo kontratatzea aurreikusten den adieraziko da.

• Erabiliko diren bitartekoak jasotzen dituen zerrendan, zein obra motari atxikiko zaizkion zehaztu beharko da.

***5.-* Obrara esleitutako langileak eta laguntza teknikoak**. Atal horretan hauek bilduko dira:

• Obrak egiten esku hartuko duten teknikarien izenen zerrenda, teknikari horien trebakuntza eta lanbide-esperientzia adieraziz; horrez gain, adierazi beharko da lanaldi osoko dedikazioa, dedikazio partziala edo aholkularitza-dedikazioa duten, baita obra egikaritu bitartean non biziko diren ere.

• Azpikontratatuko den obraren zati bat, eta azpikontratista posibleen zerrenda.

Txostena ez da izango 20 orrialde baino gehiagokoa (aurkibidea kontuan hartu gabe) DIN A4 formatuan, eta zenbaki hori gaindituz gero, 21. orrialdetik aurrera emandako informazioa edo edukia baliteke ez baloratzea..

Proposamen teknikoan ezingo da balio-judizioen mende dauden alderdiak orientatzeko edo ezagutarazteko erreferentziarik sartu. Bestela, proposamena prozeduratik kanpo geratuko da.

C gutun-azala: Eskaintza ekonomikoa eta balio-judizioen mende ez dauden irizpideak:

Proposamen ekonomikoa IV. eranskinean agertzen den ereduari egokitu beharko zaio hertsiki.

Hitzez eta zenbakiz idatzitako zenbatekoen artean kontraesanik baldin badago, eskaintza baztertu egingo da, baldin eta ezin bada ziurtasunez zehaztu bietako zein den eskainitako benetako prezioa.

Proposamena enpresa-talde batek egiten duenean, talde hori osatzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute proposamena, zuzenean edo ordezkari bitartez.

VI.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

23. KLAUSULA. PROPOSAMENAK IREKITZEA, AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK BALIOESTEA.

Kontratu hau **PROZEDURA IREKIAREN** bidez esleituko da.

A eta B gutun-azalen dokumentazioaren kalifikazioa

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik gehienez 20 eguneko epearen barruan irekiko dira A eta B gutun-azalak.

Kontratazio-organoak, irekierarako ekitaldi publikoaren data eta ordua argitaratuko ditu kontratatzailearen profilean, lizitazio-iragarkia argitaratzen den egun berean.

A eta B gutun-azalak ireki baino 5 minutu lehenago, dagokion pdf dokumentuaren irekitze-kodea jakinarazi beharko diote lizitatzaileek kontratazio-mahaiari; bestela, lizitaziotik kanpo gelditukо dira.

Pleguen irekitze-egintza horretan, telematikoki jasotako dokumentazioa kalifikatuko da, baita erkatu ere.

Erkatzea gauzatutakoan, A kartazaleko dokumentazioa udal-idazkariari bidaliko zaio, eta B gutunazalekoa, berriz, udal arkitekto teknikoari, dagozkion txostenak egiteko. Dokumentazioan akats materialak daudela ikusten bada, hiru egutegi-eguneko epea emango da adierazitako akatsa konpontzeko, eta, hala badagokio, bost eguneko epea argibideak edo dokumentu osagarriak aurkezteko.

Epe horiek jakinaraziko dira lizitazio honetarako emandako helbide elektronikoan; eta bidaltzen diren biharamunetik kontatzen hasiko dira.

Horretarako emandako epean enpresak A gutun-azaleko gabeziak osatzeko eskatutako agiriak aurkezten ez baditu, prozesutik baztertuko zaio. B gutun-azalekoak zuzentzen ez baditu, berriz, dagokion irizpidearen araberako baloraziorik ez zaio egingo lizitatzaile horren eskaintzari.

Eskaintzak ebaluatzerakoan, 18. klausulan adierazitako esleitzeko irizpideak kontuan izango dira.

Proposamen hauek ez dira onartuko.

- A gutun-azalean eskatzen diren agiri guztiak aurkezten ez dutenak, eta horiek zuzentzeko udalak emandako 3 lanegunetan, zuzendu ez direnak.

- Kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo arau-hausteak direla-eta Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko ezinbestekoa duena garbi ikusteko biderik ematen ez dutenak, eta badira zuzendu edo argitu horretarako udalak ematen dien hiru laneguneko epean; horretarako aukera dagoenean berdintasun printzipioa urratu gabe.

- Proposamen bat baino gehiago aurkezten duten lizitadoreen eskaintzak. Las de aquellas personas licitadores que presenten más de una proposición.

- Ezin daitezkeenak ireki pasahitza ez delako eman, edo emandakoa zuzena ez bada.

C gutun-azalean sartutako eskaintzak irekitzeko ekitaldi publikoa.

A eta B gutun-azaletako dokumentuen kalifikazioa eta negoziazio-fasea bukatutakoan, Mahaiak kontratistei deialdia egingo die “Eskaintza ekonomikoa eta balio-judizioei lotu gabeko irizpideak” izeneko C gutun-azala irekitzeko ekitaldi publikora bertaratzeko.

Kontratazio-organoak lizitazio-iragarkia argitaratzen den unean argitaratuko du deialdiaren data. Hori bai, aldatu egin daiteke, eta kasu horretan, kontratatzailearen profilean behar besteko aurrerapenarekin argitaratuko da irekiera-ekitaldi publikoaren egun eta ordu berria, eta lizitazioan parte hartzeko emandako helbide elektronikora jakinaraziko da.

C gutun-azala ireki baino 5 minutu lehenago eskaintzaileek C gutun-azalari dagokion pdf dokumentuaren irekiera-kodea adierazi beharko diote Mahaiari. Bestela, lizitaziotik kanpo gelditu dira.

Ekitaldi publikoak ondorengo urrats hauek izango ditu:

- Lehenik, A eta B gutun-azaleko ebaluazioaren emaitza jakinaraziko zaie bertaratutakoen, hau da, lizitatzaileren bat kanpo gelditu den eta bakoitzak lortutako puntuazioa B kartazalean.

- Jarraian, kontratzio-mahaiak C gutun-azalak irekiko ditu, hain zuzen ere, onartuta lizitatzaileen eskaintza ekonomikoa eta baliozkojudizioen menpe ez dauden irizpideak.

- Bilera itxian, kontratazio mahaiak lizitatzaileen eskaintzei puntuazioak banatuko ditu horretarako erabiliz deskribatu den formula, aurrez baztertuz lan-unitate guztientzako proposamenak jasotzen ez dituzten eskaintzak eta baita lizitazio prezioa gainditzen dutenek. Eta ondoren, esleipen-proposamena luzatuko dio kontratazio-organoari.

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak lizitatzaileari eskatu ahal izango dio aurkeztutako eskaintza argitzeko, edo, idazkuntzan akats material nabaririk badago, zuzentzeko, betiere tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatuz eta eskaintzaren terminoak inondik inora aldatzeko aukerarik gabe. Jardun guztiak administrazio-espedientean jasota geratuko dira (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 95. artikulua).

Kontratazio-mahaiak egiten duen esleipen proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako kontratistaren alde, eta ez ditu eskubide horiek eskuratutako administrazioari dagokionez, kontratazio-organoaren erabakiz kontratua behin betikoz esleitzen ez zaion bitartean.

Esleipena egin baino lehen kontratazio-organoak kontratua sinatzeari uko egiten badio edota prozeduran atzera egitea erabakitzen badu, lizitatzaileei ebazpen arrazoitua bidaltzeko jakinarazpenean lizitazio-gastuengatik ordainduko den konpentsazioa adieraziko du.

Esleipendun izateko proposatutako lizitatzaileak lizitazio-prozedura batean parte hartzeko aldez aurreko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezten duenean, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko du Mahaiak, eta konpon daitezkeen akatsak antzematen baditu, hiru eguneko epea emango dio enpresari horiek zuzentzeko, eta, hala badagokio, bost eguneko epea emango dio azalpenak edo agiri osagarriak aurkez ditzan.

Interesdunei komunikazioa telematikoki egingo zaie udalaren egoitza elektronikoaren bidez (http://astigarraga.eus/eu/tramiteak).

VII.- ESLEIPENA

24. KLAUSULA. ESLEIPENA

Proposamenak irekitzen diren egunetik kontatzen hasi eta bi hilabeteko gehieneko epearen barruan kontratazio-organoak esleipena erabakiko du, eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta 15 eguneko epearen barruan kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Esleipenaren ebazpenean kalitate-prezioa erlazioan eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazioa aurkeztea eta ondorengo klausulan adierazitako aurretiazko betekizunak egiazta ditzala, horretarako 10 egun balioduneko epea emanez.

Errekerimendua behar bezala betetzen ez bada, 3 eguneko epea emango zaio dokumentazioa zuzentzeko, betiere posible bada.

Eskatutako dokumentazioa adierazitako epean aurkezten ez bada edo zuzentzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZik gabe, zigor gisa.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenari jarraikiz.

Kontratazio-organoak lizitazioa hutsik deklaratu ahal izango du, hala dagokionean, kontratazio-mahaiaren proposamenez, klausulen agirian biltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat ez dagoenean.

25. KLAUSULA. AGIRIAK AURKEZTEA ETA ALDEZ AURRETIKO BALDINTZAK EGIAZTATZEA

1. Errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasi eta hamar egun balioduneko epean, ondoren adierazten diren aldez aurretiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du kalitate-prezio erlazioari dagokionez eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak:

- Enpresariaren nortasuna eta haren jarduera-esparrua egiaztatzen dituen dokumentazioa:

- Nortasun Agiri Nazionalaren eta agiri horren fotokopia konpultsatua aurkeztuta egiaztatuko dute beren nortasuna pertsona fisikoek.

- Enpresa pertsona juridikoa balitz, Merkataritza-erregistroan behar bezala inskribatutako eratze- edo aldatze-eskritura aurkeztuta egiaztatu beharko du nortasuna, merkataritza-legeria aplikagarriaren arabera betekizun hori exijitzekoa denean. Betekizun hori exijigarria ez bada, eraketaren edo aldaketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo eraketa-egintza, zeinetan jasotzen baitira jarduera erregulatzeko arauak; beharrezkoa bada, erregistro ofizialean inskribatuak Pertsona juridikoak lizitazio honen esleipendun izan ahalko dira, baldin eta prestazioak jasota baldin badaude beren berezko helburu, xede edo jarduera-esparru gisa beren estatutu edo eratze-arauetan; alderdi hori egiaztatuta geratu behar da aurkeztutako dokumentazioan.

Aipatutako agirien jatorrizko aleak edo kopia konpultsatuak aurkeztu behar dira, indarrean dagoen legeriaren arabera egiazkotzat jotzen direnak.

- Ordezkagarritasuna egiaztatzen duten agiriak, hala badagokio:

- Beste baten ordez aurkezten diren edo proposamenak sinatzen dituztenek, horretarako nahikoa ahalorde dutela egiaztatuko dute.
- Lizitatzailearen ordezkaritza duen pertsonaren datuak; ahalorde bidez egiaztatu beharko da.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzearen frogagiriak.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala. Lizitazio honi dagokionez, ondoren adierazten direnen bitartez egiaztatuko da aipatutako kaudimena:

Kaudimen hori honako bitarteko hauen arteko edozeinen bidez egituratuko da:

- **honako sailkapen hau indarrean dituela egiaztatuta:**

E taldea: hidraulikoak
1 azpitaldea: hornidurak eta saneamenduak.
1. kategoria

G taldea: bideak eta pistak
6 azpitaldea: kualifikazio espezifikorik gabeko bide-obrak.
1. kategoria

- **honako dokumentazio hau aurkeztuta:**

  a.- Kaudimen ekonomiko-finantzarioa egiaztatzeko arrisku profesionalengatiko 150.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru bat dagoela egiaztatzen duen frogagiri edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko da.

  b.- Azken 5 urteetan egindako lan nagusien zerrenda aurkeztuko da kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko, lan horien zenbatekoa, datak eta egikaritzapen-lekua zerrendan bilduta, baita organo eskudunak emandako edo bisatutako ziurtagiriak ere, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean edo hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren deklarazio baten edo egikaritutako obrengatik egindako fakturen kopia baten bidez.

  Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatuta geratuko da aurkeztutako dokumentaziotik egiaztatzen bada adierazitako aldian egkaritu direla, kontratu honen lizitazio-zenbatekoaz edo handiagokogo, 3 lan saneamenedu-sareak konpontzeko eta urbanizazioarenak.

  Enpresa sortu berriek – hau da, bost urtetik beherako antzinatasuna dutenek – SPKLren 88. artikuluaren 1. zenbakiko b) letratik f) letrara bitartean ezarritako edozein bitartekoren bidez egiaztatu ahal izango dute kaudimena.

  - Behin betiko bermea eratu izanaren frogagiria

  - Atzerriko lizitatzaileek adierazpena aurkeztuko dute, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla esanez, eta, hala balegokio, dagokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari berariaz uko eginez.

2. Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo omisioak ikusiko balira, lizitatzaileari jakinaraziko litzaioke, eta hiru egun balioduneko gehienezko epea emango litzaioke akats edo omisio horiek kontratuaren arduradunaren aurrean zuzen ditzan.

3. Errekerimendu hori ez bada betetzen dokumentazioa aurkezteko emandako epean, lizitatzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da eta, kasu horretan, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran, hurrengo postuan geratu den lizitatzailearen dokumentazioa aztertuko da.

26. KLAUSULA. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA.

Kontratua formalizatzen denean burutuko da.

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehazki egokituko den administrazio-dokumentu batean formalizatu beharko da, eta gainera eskritura publikoan formalizatu ahal izango da kontratistak hala eskatzen badu, sinaduratik eratortzen diren gastuak haren kargura izanik. Kasu horretan, kontratistak Administrazioari aipatu dokumentuaren kopia legitimatu bat eta kopia arrunt bat entregatu beharko dizkio formalizatzen denetik kontatzen hasi eta hilabeteko epearen barruan.

Kontratua formalizatu behar da, beranduenez ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 151. artikuluan aurreikusitako moduan lizitatzaileei esleipenaren jakinarazpena helarazten zaien egunetik zenbatzen hasi eta hamabost egun balioduneko epearen barruan.

SPKLren 153.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua adierazi den epearen barnean formalizatu ez bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio (BEZik gabe) zigor gisa, lehenengo eta behin, behin betiko bermearen aurka ordainduko dela, berme hori eratu bada, hargatik eragotzi gabe SPKLren 71. artikuluaren 2. apartatuaren b) letran ezarritakoa.

27. KLAUSULA. UKO ETA ATZERA EGITEA.

Kontratazio-organoak erabakitzen badu esleipen-prozedurari uko egitea edo deialdiaren xede den kontratua ez esleitzea edo egitea erabakitzen badu, erabaki horren berri emango die izangaiei edo lizitatzaileei.

Kontratua formalizatu aurretik erabaki ahal izango du kontratazio-organoak kontratua ez esleitzea edo egitea, edo prozedurari uko egitea. Kasu horietan, egin dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie lizitazioan parte hartzeko gai diren izangaiei edo lizitatzaileei, baldin eta gastu horiek behar bezala justifikatuta baldin badaude eta, hori horrela izan ezean, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabiltzen diren balorazio-irizpideen arabera, administrazio-prozedura erkidearen tramiteen bitartez.

Interes publikoko arrazoiengatik bakarrik erabaki ahal izango da kontratua ez esleitzea edo egitea, eta behar bezala justifikatu beharko dira arrazoiok espedientean. Kasu

horretan, ezin izango da xede bereko beste lizitaziorik sustatu, baldin eta erabakiaren oinarri gisa alegatutako arrazoiek irauten badute.

Prozedurari uko egiteko erabakia kontratua prestatzeko arauen edo esleipen-prozedura arautzen duten arauen zuzen ezin daitekeen arau-hauste batean oinarrituta egon behar da, eta espedientean justifikatu egin beharko da arrazoia. Prozedurari uko egiteko erabakia hartzeak ez du eragotziko berehala beste lizitazio-prozedura bat hastea.

VI.- KONTRATUA GAUZATZEA

28. KLAUSULA. KONTRATUAREN ARDURADUNA. JARRAIPENA ETA KONTROLA

Prozedura honen ohiko jarraipena eta kontrola Kontratazio Mahaiak egingo du. Hala ere, SPKLren 62. artikuluaren ondorioetarako, pertsona bat izendatuko da obraren zuzendaritza fakultatiborako.

Kontratatutako obra egoki egikaritzeko beharrezkoak diren zuzendaritza-, ikuskaritza-, egiaztatze-, eta zaintza-lanak kontratazio-organoak izendatutako obra-zuzendariak egikarituko ditu. Gainera, ondorengo eginkizunak bete beharko ditu, hitzartutako prestazioa behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko:

a) Kontratuaren xedea betetzerakoan sor litekeen edozein gorabehera konpontzeko beharrezko diren bilerak sustatzea eta deitzea, interes publikoari ondoen datozkion baldintzetan.

b) Kontratua egikaritzerakoan sortutako gorabeherak konpontzea, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren (aurrerantzean, HAKLEO) 97. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki.

c) Kalte-galerak erreklamatzeko eta behin betiko bermea konfiskatzeko espedienteetan txostenak egitea.

d) Zerbitzuak partzialki eta/edo osorik jaso aurretik, txostenak egitea.

e) Bermeak itzultzeko edo ezerezteko espedientetan, txostenak egitea.

f) Berme-epearen betetze-mailaren berri ematea.

g) Kontratua egikaritzeko ezarritako baldintza berezi eta funtsezkoen betetze-mailaren berri ematea.

h) Kontratatutako prestazioak ondo egikaritu izanari buruzko ziurtagiriak emateko txostenak egitea.

i) Kasu bakoitzean dagozkion ildo nagusiak ezartzea; esleipendunari edozein unetan eskatu ahal izango zaio kontratuaren xedearen egikaritze-egoerari, esleipendunaren betebeharrei eta epeen eta jarduketen betetze-mailari buruzko beharrezko informazioa.

j) Hitzartutakoa behar bezala garatzea lortzeko edo egoera hori berrezartzeko beharrezko neurriak adostea premiazko beharra dagoenean, edo kontratistak, edo haren mende dauden pertsonek, kontratua behar bezala egikaritzea oztopatzen duten egintzak edo egintzarik ezak egiten dituztenean, horren berri eman beharko zaiolarik kontratazio-organoari.

k) Prestazioaren egikaritza bertan behera uztea proposatzea eta horren berri ematea.

l) Obrak hartzeko egintzetara joatea, eta betetze-mailarekiko adostasuna edo adostasunik eza egiaztatzen duten Harrera-aktak izenpetzea.

m) Kontratistari jarraibideak ematea, beti ere ez badute kontratuaren xedea aldatzen eta ez badira indarrean dauden xedapenen edo Pleguetako eta gainerako kontratu-agirietako xedapenetatik eratorritakoen aurkakoak.

Horrez gain, kontratazio-organoak izendatutako pertsonen laguntza izan dezake obra-zuzendariak.

Bere eginkizunak betetzeko, arduradunak eta harekin lankidetzan dihardutenek sarbide librea izango dute kontratuaren objektua ematen den lekuetara, eta egokitzat jotzen dituzten ikuskapenak egin ahal izango dituzte kontratistak koordinatzaile izendatutako pertsonak lagunduta.

Gainera, obraren zuzendaritzak katak irekitzeko agindu ahal izango du, baldin eta eraikuntza akats ezkutuak daudela susmatzen badu edo kalitate eskaseko materialak erabili direla. Akats horiek daudela egiaztatuz gero, kontratistak ordaindu beharko ditu aintzatespenak eta konponketak eragindako gastuak. Bestela, Zuzendaritzak katak egin eta konpontzeari dagokion kalte-ordaina ziurtatuko du, esleipen-aurrekontuaren banakako prezioetan baloratuta.

Era berean, Zuzendaritzak, APKLEOren 145. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, entseguak eta analisi materialak eta obra-unitateak egitea agindu ahal izango du, eta kasu bakoitzean egokiak diren txosten espezifikoak biltzea. Sortzen diren gastuak kontratistaren kontura izango dira.

Esleipendunak obra-ordezkari bat izendatu beharko du. Hori teknikari tituluduna izan beharko du, eta kontratu honen xede diren antzeko obretan esperientzia egiaztatua izan beharko du.

29. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZEA

Obra kontratua gauzatzen hasteko, zuinketa egiaztatzeko akta egingo da kontratua sinatu ondoren hilabeteko epean gehienez ere, aparteko arrazoiak dauden kasuetan izan ezik.

Obren zuinketa egiaztatzea esleipendunaren edo haren ordezkariaren aurrean egingo da, legezko eskakizunak eta ondorioak kontuan hartuta, zehazki Sektore Publikoko Kontratu Legearen 237. artikuluan eta Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 139, 140 eta 141. artikuluan aurreikusiak.

Kontratuaren betearazpena esleipendunaren ardurapean eta kontura egingo da. Nolanahi ere, agiri honetan estipulatutako klausulei, klausula teknikoen agiriari, LBR SLP ingenieritzak idatzitako obra-proiektuari eta lizitazioan parte hartzeko aurkeztutako proposamenari jarraikiz egingo da (azken horren kasuan, betiere udalaren ongi ikusia badu), baita Udalak eman ditzakeen irizpideei eta Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta gainerako arauzko xedapenetan ezarritakoari zorrotz jarraikiz.

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du kontratuaren zati bat, SPKLaren 215. artikuluan ezarritako eskakizunak beteta. Nolanahi ere, kontratua betetzen hasten denean, idatziz jakinarazi beharko dio kontratistak kontratuaren arduradunari azpi-kontratuak egiteko asmoa duela, eta azpi-kontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta haren legezko ordezkariaren edo ordezkarien datuak eman beharko dizkio, azpi-kontratistak kontratua egikaritzeko gaitasuna duela behar bezala justifikatuz, eta azpi-kontratista horrek SPKLaren 71. artikuluaren arabera kontratatzeko debekurik ez duela egiaztatuz.

Halaber, kontratu nagusia egikaritzen den bitartean informazio horri dagokionez gerta daitekeen edozein aldaketaren berri eman beharko dio kontratista nagusiak kontratuaren arduradunari, bai eta azpi-kontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztiaren berri ere.

Kontratistak azpi-kontratazioaren berri eman behar die langileen ordezkariei, lan arloko legeriaren arabera. Hori guztia, SPKLaren aipatutako 215. artikuluan adierazten denaren arabera.

Gainera, honako betebehar hauek bete beharko dira:

a) Enpresa kontratistak azpikontratazio prozesuan bete egin beharko ditu eraikuntzaren arloan azpikontratazioa arautzen duen 32/2006 Legeak eta lege hori garatzen duen 1109/2007 Errege Dekretuak xedatutakoa; baita laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden arauak ere, eta azpikontratista orori ere araudi hori betearaziko dio.

b) Enpresa kontratistak Azpikontratazio Liburua eduki beharko du, eta liburu hori eskura egongo da obran esku hartzen duten eragile guztientzat. Gainera, Azpikontratazio Liburuan egindako anotazio guztiak segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileari jakinarazi beharko dio.

c) Enpresa kontratistak egiaztatu behar du, azpikontratatutako jarduerari ekin aurretik, azpikontratatutako enpresetako langileen Gizarte Segurantzako alta eta afiliazioa, eta kontratazio organoari jakinarazi behar dio.

d) Kontratistak inola ere ezingo du hitzartu kontratuaren zati bat egitea lege ordenamenduaren arabera kontratatzeko ezgaituta dauden pertsonekin.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren 100eko 10.

Inola ere ez da baimenduko hirugarrenei lizitazio honen ondorioz sinatutako kontratuaren lagapenik egitea.

30. KLAUSULA.- PROIEKTUA INTERPRETATZEA

Obra-zuzendariari dagokio obra-proiektuaren interpretazio teknikoa egitea eta hura garatzeko aginduak emateko ahalmena.

Kontratistak ezingo du argudiatu, inolako kasutan, obra-proiektuaren zehaztasunik eza. Bere ustez zehaztasunik ezaren bat izango balu, obraren zuzendariari idatziz eskatu beharko dio dagokion zehaztasuna ematea obra hasi baino nahikoa aurrerapenarekin, eta erantzuna jaso bitartean gauzatze-epea gelditzea eska dezake.

31. KLAUSULA.- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA

Kontratistak 15 laneguneko epean, kontratua sinatzen den unetik kontatzen hasita, Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztuko da.

Plana, eraikuntza obretan segurtasun eta osasun alorreko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1997ko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuak 7. artikuluan agindutakoaren arabera prestatuko da. Segurtasun eta osasun planak ezingo du aldaketarik sartu kontratuaren baldintzetan eta, besteak beste, aurreikusitako azpikontratuak zehaztu beharko ditu.

Eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa arautzen duen 31/2006 Legea garatzen duen 1109/2007 Errege Dekretuaren 16.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratistak Azpikontratazio Liburuan idatzitako azpikontratazio bakoitzaren berri eman beharko dio segurtasun- eta osasun-koordinatzaileari.

32. KLAUSULA.- KONTRATISTAREN/KONTRATISTEN BETEBEHAR OROKORRAK

- Kontratua esleitzen zaion enpresak edo aldi baterako enpresa batasunak kontratuan aurreikusitako epeetan burutu eta eman beharko dizkio Astigarragako Udalari proiektatutako lanak.

- Obrak egiterakoan, zorrotz jarraitu behar zaie obra-proiektuari eta baldintzen eta ezaugarrien agiriei, aplikagarriak diren arau orokorrei eta kontratatutako lanen izaeragatik dagozkion arau teknikoei, bai eta obra-proiektua interpretatuz obra zuzendaritzak kontratistari eman diezazkiokeen jarraibideei. Jarraibideak ahoz ematen direnean, alderdiak lotuko badituzte, idatziz berretsi behar dira ahalik eta azkarren.

- Udalak beharrezkotzat jotzen badu, esleipendunak lanen programa bat aurkeztu beharko du, administrazioak onar ditzan. Programa hori B gutunazalean aurkeztutakoa garatu beharko du eta ezingo da horrekin kontraesanean egon, ez bada udalak beste irizpide batzuk eman dizkiola.

- Kontratistak izango du obra-proiektuan aurreikusitako lanak zuzen garatu eta egitearen ardura, obrak behar bezala bukatu arte.

- Obrak gauzatzen diren bitartean eta berme epea bete artean, kontratistak izango du antzeman daitezkeen akatsen erantzukizuna.

  Administrazioaren iritziz obraren zatiren bat gaizki egina badago, kontratistak berriro egin beharko du, horregatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, akatsa lanaren harrera egin eta gero aurkitu bada ere.

  Akatsa duten edo kontratuko baldintzak zorrotz betetzen ez dituzten obra unitateak, hala ere onargarriak direla uste badu obra zuzendariak, onartzeko proposa diezaioke Administrazioari, prezioetan beherapena eginda. Kasu horretan, Administrazioak ezarritako prezio beherapena onartzera behartuta dago kontratista, edo, bestela, nahiago badu, gaizki dauden obra unitateak desegin eta berriz eraiki beharko ditu, bere kontura eta kontratuko baldintzen arabera.

- Behin-behineko instalazio eta obrek atxikitako tokiak obraren aurretik zegoen moduan utzi beharko du kontratistak.

- Lanak egiteko, kontratistak lantalde eta langile egokiak erabili behar ditu, lan eta espezialitate bakoitzak eskatzen dituen premiei erantzuteko.

- Enpresa kontratistak topografiako teknikari bat jarriko du kontratuaren esku, eta teknikari horrek titulazio nahikoa izango du hala eskatzen duten lan guztiak egiteko.

- Kontratistak bere kontura egin beharko ditu bulegoetarako eraikinak, biltegiak, txabolak, sarbide postak, zerbitzu bideak eta behar diren gainerako gauzak.

- Obra amaitzean edo aurretik, kontratistak bulegoetarako eraikinak, biltegiak, txabolak, sarbide postak, zerbitzu bideak eta behar diren gainerakoak desmuntatu eta kendu egin beharko ditu, eta baita ere, tresnak, materialak eta abar. Kendu ondoren, hauek erabilitako lekuak garbituko ditu, guztiz garbi eta obra-hondakin gabe utziaz.

- Obrak egiteko behar den energia elektrikoa kontratistaren kontura da, eta horrek jarri beharko ditu behar diren lineak.

- Beharrezko neurriak hartuko ditu enpresa kontratistak, kasuan kasu, erregaien, aglutinatzaileen, olioen edo beste edozein material kaltegarriren eraginaren ondoriozko kutsadura saihesteko.

- Enpresa kontratistak material guztiak eta obra bera zaindu beharko ditu narriadura eta kalte ororen aurka eraikuntzaldian eta material sukoi guztiak biltegiratu eta suteen aurka babestu beharko ditu.

- Behar bezain garbi izan behar ditu obra barruko nahiz kanpoko gune guztiak, eta soberakinak eta hondakinak ebakuatu behar ditu.

- Enpresa kontratistak neurri guzti-guztiak hartuko ditu hirugarren alderdiei kalte-galerak saihesteko, eta bere erantzukizun esklusibokoak izango dira obren egikaritzapenetik zuzenean edo zeharka ondoriozta daitezkeen guztiak.

  Kontratua egikaritzeko behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalte-galerak, berez edo enpresarekiko independenteak diren langile edo bitartekoek eraginda, enpresa kontratistak ordaindu beharko ditu. Kalte-galera horiek administrazioaren agindu batek berehala eta zuzenean eragindakoak badira, horren erantzukizuna legeak araututakoaren arabera ezarriko da.

- **Kontratistak aseguru kontratu bat eduki beharko du kontratua burutzeko epe osoan (luzapenak barne) eta bermealdian (gehikuntzak barne), kontratua burutzetik hirugarrenei edo obrari eragin dakizkiekeen kalteen erantzukizuna estaltzeko**; Hori dena kontratua sinatu eta gehienez hilabete batean egiaztatu beharko du, jatorrizko poliza eta dagozkion primen ordainagiriak aurkeztuz edo aseguru etxearen ziurtagiri egokiak aurkeztuz.

- Kontratistaren betebeharra da Administrazioari jakinaraztea nortasun juridikoari eragin lekiokeen edozein aldaketa, eta fakturak ordaintzeko legezko epea eten egingo da datuak egiaztatu arte.

- **Obra gauzatzen den bitartean erabiltzen diren kartel, errotulu, ohar eta seinale guztiek ezingo dute hizkuntzaren erabilera sexistarik egin; halaber, irudi sexitak erabiltzea debekatzen da.**

- **250 langiletik gorako plantilla duten enpresek, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren diseinua eta aplikazio eraginkorra egiaztatu beharko dute.**

Baldintza horiek ez betetzeak berarekin ekarriko du Sektore Publikoko Kontratuen Legean zehazten den zigorra ezartzea, kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik. Zigorra, bete ez denaren araberakoa izango da, proportzio irizpide baten bidez.

33. KLAUSULA. BETEBEHARRAK: FISKALITATEAREKIN, GENERO-BERDINTASUNAREKIN, INGURUMENA BABESTEAREKIN, ENPLEGU ETA LAN-BALDINTZEKIN ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN EHUNEKO JAKIN BAT KONTRATATZEAREKIN LOTURIKO OBLIGAZIOAK

Esleipendunak lanaren eta gizarte-segurantzaren alorrean indarrean dagoen araudia bete behar du nahitaez. Era berean, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, pertsona desgaituen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duena, 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa, 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Araudia, eta kontratua egikaritzen den bitartean promulgatzen diren arauak bete beharko ditu nahitaez.

Enpresa kontratistak, kontratua egikaritzen den aldi osoan, lan-hitzarmen honetan ezarritako arauak eta baldintzak bete beharko ditu nahitaez: Eraikuntzako eta Obra Publikoko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboa

Enpresak kontratua gauzatzeko izendatutako pertsona aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan dagokion kategoria profesionalean kontratatu beharko du.

Kontratistak, orobat, zuritu beharko du, dagozkion datuak azpikontratatutako enpresa orori eskatu eta gero, ezen enpresa azpikontratatuak ere, obrak gauzatzean, lan eta gizarte segurantza arloan indarrean dauden xedapen horiek aplikatzen dituela eta, zehazkiago, Eraikuntzako eta Obra Publikoko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboak jasotzen dituen lan baldintzak eta laneko segurtasun eta osasuneko betebehar guztiak aplikatzen dituela.

Baldintza-orri hauen IV. Eranskin gisa doan proposamen ekonomikoaren ereduan berariaz agerraraziko da beren eskaintzetan kontuan hartu dituztela fiskalitatearekin,

ingurumenaren babesarekin, lana babestearekin, genero-berdintasunarekin, lan-baldintzekin, laneko arriskuen prebentzioarekin eta desgaitasuna duten pertsonak gizarteratu eta laneratzearekin loturik indarrean dauden xedapenek eskatutako betebeharrak, eta halaber, desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko berezi bat kontratatzeko obligazioa, eta dena den, ezohiko balioak edo neurriz kanpokoak jasotzen dituzten eskaintzak egiaztatzeari buruz 2017ko SPKLko 149. artikuluan xedatutakoa aplikatu ahal izango da.

Lizitatzaileek informazio egokia erdietsi ahal izango dute fiskalitatearekin eta ingurumenaren babesarekin loturiko obligazioei buruz, enplegu-babesaren, lan-baldintzen eta laneko arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dauden xedapenei buruz eta, halaber, lana babestearekin, genero-berdintasunarekin, lan-baldintzekin eta laneko arriskuen prebentzioarekin nola desgaitasuna duten pertsonak gizarteratu eta laneratzearekin loturik indarrean dauden xedapenei buruz, baita desgaitasunen bat duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharrari buruz ere; obligazio horiek obran egindako lanei edota kontratua burutu bitartean eskainitako zerbitzuei aplikatuko zaizkie, ondoren adierazten diren erakunde hauetan:

- Fiskalitatea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailean eta gainerako zerga administrazioetan.

- Enpleguaren babesa, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa, eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza.

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoa.

- Ingurumenaren babesa: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia, IHOBE SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

Betebehar horiek ez betetzearen ondoriozko erantzukizun guztiak kontratistari egotziko zaizkio. Gainera, aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren 100eko 10.

34. KLAUSULA.- ERAIKITZEKO ETA ERAISTEKO HONDAKINEN ARLOKO BETEBEHARRAK

- Lanak hasi baino lehen, obra egingo duen pertsona fisiko edo juridikoak jabeari plan bat aurkeztu beharko dio, obra egiterakoan sortuko diren eraikitzeko eta eraisteko hondakinekin zerikusia duten eskakizunak nola beteko dituen azaltzen duena, batez ere Eraikuntza eta Eraispen Hondakinen Egoizpena eta Kudeaketa

arautzen duen 112/2012 Dekretuak eta 2008ko otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuak, eraikitzeko eta eraisteko hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzekoak, 4.1 eta 5. artikuluetan jasotakoak.

- Plana onartu ondoren, obra kontratua osatzen duten agiriei gehituko zaie.

- Baldintza horiek ez betetzeak berarekin ekarriko du Sektore Publikoko Kontratuen Legean zehazten den zigorra ezartzea, kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik.

  Zigorra, bete ez denaren araberakoa izango da, proportzio irizpide baten bidez.

- Obra amaitzean, udalak hondakin guztiak behar bezala bereizi, kudeatu eta, ahal den neurrian, balorizatu direla egiaztatzeko eskatu ahal izango du.

35. KLAUSULA.- TRAFIKOAREN GAINEKO ERAGINA ETA BIDE SEINALEAK.

Nolanahi ere, kontratistak Astigarragako Udaleko obra eta zerbitzuak sailari eta udaltzaingoari jakinarazi behar dizkio obrak direla-eta trafikoan egin beharreko etenak edo aldaketak, eta udal-zerbitzuek trafikoarekiko afektazioak minimizatzeko eta oinezkoen segurtasuna ziurtatzeko ezartzen dituzten arauak bete beharko dituzte nahitaez.

Enpresa kontratistak, bere kontura eta bere kontura, seinale zehatzak instalatu beharko ditu obrak egiteko behar diren errepide-mozketek eragiten dituzten desbideratzeak adierazteko, bai eta obrarako sarbideek eta lan-eremuko eta haren inguruko trafikoa erregulatzeko ere, arriskutsuak izan daitezkeen puntu guztietan edo horien martxak eragindako lekuetan.

36. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZERAKOAN BETE BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak ezarritako eta Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko 10/1982 Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak araututako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago.

Kontratu honen xede den obra gauzatzeko herritarrei eta administrazioari zuzentzen zaizkien idatzizko elementuak (inprimakiak, jakinarazpenak, oharrak, seinaleak, errotuluak, abisuak …) bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, euskarari lehentasuna emanez.

Esleipendunak, kontratua indarrean dagoen bitartean, hizkuntzaren erabilera sexistarik egingo inongo euskarri idatzi edo digitalean, eta, gainera, datuak sexuaren arabera bereizi beharko ditu pertsonei buruzko edozein estatistiketan, guztia 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 2.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, bertan aipatzen baitira gorde beharreko printzipio orokorrak.

Hizkuntza baldintza horiek ez betetzeak berarekin ekarriko du Sektore Publikoko Kontratuen Legean zehazten den zigorra ezartzea, kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez exekutatzeagatik.

Zigorra ez-betetzearen larritasunaren araberakoa izango da, proportzio irizpide bati jarraituz.

37. KLAUSULA.- ZIGORRAK EPEAK EZ BETETZEGATIK

Esleipendunak kontratua gauzatzeko epeak betetzera behartuta dago. Epe hori zunketa akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasiko dira.

Kontratua gauzatzeko epeak betetzen direla bermatzeko, Sektore Publikoen Kontratuen legearen arabera, zigorrak ezarriko dira.

Ezarriko diren zigorrak, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateginak 212.4 artikuluan arabera ezarriko dira: atzeratutako egun natural bakoitzeko, kontratuaren prezioaren (BEZa gabe) 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko zigorra.

38. KLAUSULA.- BESTE ZIGOR BATZUK .

Kontratistak ez badu ondo gauzatzen kontratuaren xedea edo plegu hauek, ondo gauzatzeko behar diren bitarteko pertsonalak edo materialak jartzeko konpromisoa ez badu betetzen, eskaintzak baloratzeko oinarritzat hartu ziren irizpideetakoren bat ez badu betetzen edo, bere erruz ez baditu gauzatzen osorik kontratuan definitutako lan guztiak, orduan kontratazio organoak erabaki dezake urraketaren proportzioan egongo den zigor ekonomiko bat jartzea, kontratuaren aurrekontuaren % 10era hel daitekeena.

Halaber,% 10erainoko zigorrak ezarriko dira kontratua gauzatzean hizkuntza-baldintzak, lan-arloko gizarte-betebeharrak, gizarte-segurantza eta laneko segurtasuna eta osasuna ez betetzeagatik, bai eta fiskalitateari, genero-berdintasunari, ingurumena babesteari, enpleguari eta lan-baldintzei eta desgaitasuna duten pertsonen ehuneko jakin bat kontratatzeari buruzkoak ere; edo eraikuntza- eta eraispen-hondakinen arloko ez-betetzeagatik.

Aldiz, azpikontratazioaren arloko betebeharrak ez betetzeak ez-betetzearen larritasunaren araberako zigor ekonomikoak ezartzea ekarriko du, eta zigorraren zenbatekoa ezingo da izan kontratuaren prezioaren 100eko 50 baino handiagoa.

39. KLAUSULA. UDALAREN ESKUMENAK

Udalari dagozkio hainbat eskumen, hala nola kontratua interpretatzea, kontratuaren betearazpenak eskaintzen dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiak direla-eta aldatzea, kontratua egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzea, kontratuaren egikaritzapena etetea, kontratuaren suntsiarazpena erabakitzea eta suntsiarazpen horren ondorioak zehaztea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako mugen barruan eta eskakizun eta ondorioei jarraikiz.

Era berean, kontratua egikaritzen den bitartean kontratistek garatutako jarduerak ikuskatzeko ahalmenak ditu kontratazio-organoak, aipatu Legean kontratu mota bakoitzerako ezarritako moduan eta mugekin.

Aurreko artikuluan ezarritako eskumenei buruzko erabakiak hartzeko gauzatzen diren prozeduretan kontratistari entzunaldia eman beharko zaio.

Hartarako emandako erabakiek administrazio-bidea agortuko dute, eta berehala betearazi beharrekoak izango dira.

40. KLAUSULA.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua formalizatu ondoren, eta tartean interes publikoko arrazoiak badaude, kontratua aldatzea erabaki ahal izango du kontratazio-organoak.

Alde batera utzi gabe kontratistaren ondorengotzari, kontratuaren lagapenari, prezioak berrikusteari eta gauzatze-epea betetzeari dagokienez 2017ko SPKLk dioena. Interes publikoko arrazoiengatik soilik aldatu ahal izango dira administrazio-kontratuak, 2017ko SPKLren 203. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako baldintzetan eta 2017ko SPKLren 191. artikuluan araututako prozeduraren arabera, 2017ko SPKLren 207. artikuluan ezarritako berezitasunekin.

Kontratu hau aldatzeko arrazoitzat ezarri dira honako hauek:

- **Proiektuan definitutako eraikuntzako konponbideak aldatzera behartzen duten ezkutuko ezusteak azaltzea.**

- Ezinbestekotzat hartzea proiektuan azaltzen ez diren materialak edo eraikuntzako konponbideak erabiltzea.

SPKLren 242.2 artikuluaren ii) apartatuan xedatutakoaren arabera, ez dira kontratu-aldaketatzat hartuko:

> i. Neurketak gehiegizkoak izatea, halakotzat ulerturik obra behar bezala egiten den bitartean egiazki gauzatutako unitateen kopuruaren eta proiektuaren neurketetan aurreikusitako kopuruaren artean izaten den aldea soilik, betiere orokorrean ez dutenean egiten hasierako kontratuko prezioaren ehuneko 10etik gorako gastu-igoera. Neurriak gehiegizkoak izate hori obra-amaierako ziurtagirian jaso beharko da.
>
> ii. Prezio berriak sartzea, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako prozeduren bidez kontraesanez finkatutakoak, baldin eta prezio berri horiek kontratuaren prezio orokorraren igoerarik ez badakarte eta obra-unitateetan hasierako aurrekontua guztira ehuneko 3 gainditu gabe eraginik ez badute.

41. KLAUSULA.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

2017ko SPKLn aipatutako arrazoi orokorrengatik ez ezik, hauengatik ere suntsiarazi ahal izango da obrakontratua:

a) Zuinketaren egiaztapenean arrazoirik gabe berandutzea.
b) Obren hasiera lau hilabete baino gehiago atzeratzea.
c) Administrazioak zortzi hilabete baino gehiago etetea obrak.
d) Atzera egitea.

Kontratua suntsiarazten bada, obrak egiaztatu, neurtu eta likidatuko dira, obra-memoriaari jarraikiz, eta kontratistak zer saldo jaso edo ordaindu behar dituen ezarriko da. Deia bidaliko zaio kontratistari, kontratazio-espedientean ageri den helbide elektronikora, egiaztapen- eta neurketa-lanak egitean bertan izan dadin (2017ko SPKLren 246. art.).

Zuinketaren egiaztapena arrazoirik gabe atzeratzen bada eta, ondorioz, kontratua suntsiarazi, kontratistak adjudikazio-prezioaren (BEZ kanpo) ehuneko 2ko kalte-ordaina baino ezin izango du jaso guztira (2017ko SPKLren 246.2 art.); beti ere, atzerapena ez bada esleipendunaren erru.

Administrazioak atzera egiten badu obrei hasiera eman aurretik edo lau hilabete baino gehiago atzeratzen badu obren hasiera, kontratistak adjudikazio-prezioaren (BEZ kanpo) ehuneko 3ko kalte-ordaina jaso ahal izango du guztira (2017ko SPKLren 246.3 art.).

Obrei hasiera eman ondoren egiten bada atzera kontratuan, edo zortzi hilabete baino gehiago eteten badira hasitako obrak, egin gabeko obrei dagokien kontratuko adjudikazio-prezioaren (BEZ kanpo) ehuneko 6 jaso ahal izango du guztira kontratistak, industria-irabazi gisa. Egin gabeko obratzat joko dira hasierako kontratuan eta ondorengo

aldaketetan jaso diren obren eta atzera-egitearen edo etetearen berri eman den datara arte egindakoen arteko aldea osatzen dutenak (2017ko SPKLren 246.4 art.).

Segurtasunagatik edo eraikitakoa aurri-egoeran gera ez dadin obrekin beste enpresaburu batek edo Administrazioak berak jarraitu behar badu, premiaz, kontratazio-organoak, kontratistari jakinarazi ondoren egindako obrak likidatu direla, obrekin jarraitzea erabaki ahal izango du. Hala ere, kontratistak aukera izango du egindako balorazioa organoaren beraren aurrean inpugnatzeko. Kontratazio-organoak hamabost eguneko epean ebatziko du dagokiona (2017ko SPKLren 246.5 art.).

42. KLAUSULA.- OBRAK ONARTZEA, BERMEALDIA ETA BEHIN BETIKO BERMEAREN ITZULKETA

Obrak amaitzen direnean, honako hauek joango dira obren harrerara: kontratuaren arduraduna, edo Administrazioak izendatutako teknikari bat, haren ordezkari gisa; obren zuzendaritzaz arduratzen den teknikaria; eta kontratista, bere teknikariak lagunduta, egoki baderitzo.

Obrak onartu eta hiru hilabeteko epean, gauzatutako obren azken ziurtapena onartu behar du kontratazio organoak, kontratua likidatzeko kontuan ordainduko dio dagokion organoak kontratistari.

Obrak egoera onean badaude eta ezarritako preskripzioak betetzen badituzte, administrazio kontratugileak haren izenean aritzeko aukeratutako funtzionario teknikariak onartutakotzat joko ditu, dagokion akta egingo du, eta bermealdia hasiko da.

Obrak ez badaude onartzeko moduan, hala adieraziko da aktan. Haien zuzendariak zer akats hauteman diren adieraziko du, jarraibide zehatzak eskainiko ditu, eta epe bat jarriko du akatsak konpontzeko. Epe hori igarotakoan kontratistak ez badu bete agindutakoa, beste epe bat eman ahal izango zaio, luzaezina, edo kontratua suntsiarazi ahal izango da.

Berme-epea, obrak jasotzen diren egunetik hasita, urtebetekoa izango da.

Epe horretan, HAKLAOko 167. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da, bai kontratistaren betebeharrei dagokienez, bai kontratistak betebeharren bat bete ezean obra zaintzeko beharrezkoak diren lanak bere kontura egiteko Administrazioak duen ahalmenari dagokionez ere.

Kontratistaren kontura izango dira bermealdian obrak zaintzeak sorrarazten dituen gastuak, eta ez du eskubiderik izango kalte-ordainik jasotzeko. Ez dira kontuan hartuko ezinbestean obrari eragindako kalteak, haiek Udalaren kontura izango baitira. Hala ere, konponketa-lanak egiteko eskatu ahal izango dio Udalak kontratistari.

Bermealdia bete baino hamabost egun lehenago, obraren zuzendari fakultatiboa, ofizioz edo kontratistak hala eskatuta, obren egoerari buruzko txosten bat prestatuko du.

Txostena aldekoa bada, kontratista erantzukizun orotik salbuetsita geratuko da (ezkutuko akatsengatiko erantzukizunetik izan ezik), eta bermea itzuli edo kitatuko da, kontratua likidatu, eta, hala badagokio, dauden betebeharrak ordaindu, organo eskudunen bidez.

Txostena ez bada aldekoa eta hautemandako akatsak obra gauzatzerakoan egindako hutsei zor bazaie, eta ez eraikitakoa erabiltzeari, bermealdian zuzendari fakultatiboak jarraibide egokiak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa konpon dezan. Horretarako, epe bat emango dio, eta, epe horretan, obrak zaintzen jarraituko du, baina ez du eskubiderik izango ezer jasotzeko bermealdia luzatzeagatik.

Bermealdia amaitu ondoren hondatzen bada obra, kontratistak kontratua ez betetzearen ondorioz ezkutuko akatsak agertu direlako, kontratista izango da kalte-galeren erantzule, obrak onartu eta hamabost urteko epean.

43.- KLAUSULA.- EZKUTUKO AKATSEN ERANTZUKIZUNA.

Obra suntsituko balitz edo bere funtzioarekin bateraezinak diren kalte larriak jasango balitu berme-epea igaro ostean, eraikuntzako ezkutuko akatsen ondorioz, kontratistak kontratua ez duelako bete, hura izango da gertatzen edo adierazten diren kalte eta galeren erantzulea hamabost urteko epe baten barruan harrera egiten denetik zenbatzen hasita.

Akats edo gabezietatik eratorritako kalte materialengatik aurreko atalean aurreikusitako erantzunkizuna eskatzeko ekintzak bi urteko epean preskibatuko dira kalte horiek gertatu edo adierazten direnetik zenbatzen hasita, kontratua ez betetzearen ondoriozko erantzunkizunak eskatzeko manten daitezkeen ekintzen kalterik gabe.

Epe hori amaitutakoan kalte edo galerarik izan ez bada, kontratistaren erantzunkizuna amaitutzat joko da.

44.- KLAUSULA.- ESKUMENEKO JURISDIKZIOA

Kontratu honen ondoriozko gai eztabaidatsuak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta hartzen dituen erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari .

Administrazio-bideari amaiera jartzen dioten eta berehala betetzekoak diren egintzak errekurritu egin ahal izango dira, hilabeteko epean berraztetze errekurtsoaren bitartez (udalean bertan) edo bi hilabeteko epearen barruan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarrita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako moduan.

Auziren bat egongo balitz, esleipendunak bere foru jurisdikzionalari espreski uko eginez, Gipuzkoako Epaitegi eta Auzitegitara jotzeko konpromezua adierazten du.

I. eranskina - Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua (A kartazala)

……..jaunak/andreak, helbidea ……..……eta ……..zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo …… gisa (adierazi ordezkaritzaren ahalmenak; administrari bakarra, apoderatua…), helbidea …….. eta …….zenbakidun IFK duen …….enpresaren ordezkari gisa, lizitazioan parte hartzeko, Oñatiko Udalaren aurrean,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU, BERE ERANTZUKIZUNPEAN

LEHENENGOA.- AGUIko SANEAMENDUA KONPONTZEKO LANEN kontratazioan parte hartzera doala

BIGARRENA. 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen espainiar ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duen Sektore Publikoko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140. artikuluaren lehenengo atalak obra-kontratuaren esleipendun izateko exijitzen dituen aurretiazko eskakizun guztiak betetzen dituela; honako hauek, hain zuzen ere:

- Dagokion sailkapena duela edo exijitzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko eskakizunak betetzen dituela.
- Pertsona juridikoa bada, sozietatea baliozko moduan eratuta dagoela eta, sozietatearen helburuaren arabera, lizitaziora aurkez daitekeela, eta adierazpenaren sinatzaileak dagokion ordezkagarritasuna duela proposamena aurkezteko.
- Ez duela bere kabuz edo hedapenez kontratatzeko debekurik, SPKLaren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz, eta indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Atzerriko enpresen kasuan, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla, eta, hala balegokio, lizitatzaileei dagokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.
- **Honako hau dela jakinarazpenetarako helbide elektronikoa: ……**

HIRUGARRENA. Adierazpen honen bigarren atalean aipatzen diren agiriak badituela eta horiek baliozkoak direla egiaztatzeko konpromisoa hartzen duela, esleipendun gisa proposatzen badute edo horretarako errekerimendua egiten dioten edozein unetan.

Eta hori jasota gera dadin, honako adierazpen hau sinatzen dut.

…….n, ….(e)ko .....ren ....(e)(a)n.

Sinadura (sinadura eta enpresaren zigilua)

II. eranskina: Kanpoko baliabideak (A kartazala)

ZINPEKO DEKLARAZIOA, ESKATUTAKO KAUDIMENA EDO BALIABIDEAK BERMATZEKO, LIZITATZAILEAK BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENEAN EDO BALIABIDEETAN OINARRITU NAHI DUEN KASUETARAKO

..... jaunak/andreak, helbidea ..... duenak eta .....NAN zenbakia daukanak, ... enpresaren legezko ordezkari gisa, helbidea ..... duenak eta ..... NAN edo IFZ duenak, adierazten du ASTIGARRAGAKO UDALAREN lizitazioko baldintzak eta horien ondorio guztiak ezagutzen dituela, **AGUIko SANEAMENDUA KONPONTZEKO LANAK** kontratatzeari buruzkoak, non ..... [*lizitatzailearen izena*] lizitatzaile moduan lehiatzen den, eta adierazten du badituela eskatutako kaudimena eta baliabideak –lizitatzailea esleipendun suertatuz gero frogatu egin beharko du– eta bere borondate atzeraezina adierazten du kontratuaren esleipendun gertatzen bada aipatutako lizitatzailearen esku jartzeko kontratua betetzeko beharrezkoak diren baliabideak, Kode Zibilaren 1.257. artikuluko 2. atalean xedatutakoa esanbidez onartu eta bere ordezkapena edo aldaketa Astigarragako Udalak esanbidez baimendu beharko duelarik.

Idazki hau Astigarragako Udalaren aurrean aurkezteak konpromiso hori onartzea ekarriko du, delako lizitatzailea kontratuaren esleipenduna suertatzen den kasuan.

……n, ...(e)ko .....ren ....(e)(a)n.

Sinadura (sinadura eta enpresaren zigilua)

III. ERANSKINA -ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA (A kartazala)

……..jaunak/andreak, helbidea ……..……eta ……..zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo ……. gisa (adierazi ordezkaritzaren ahalmenak; administrari bakarra, apoderatua…), helbidea …….. eta …….zenbakidun IFK duen …….enpresaren ordezkari gisa ETA ……..jaunak/andreak, helbidea ……..……eta ……..zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo ……. gisa (adierazi ordezkaritzaren ahalmenak; administrari bakarra, apoderatua…), helbidea …….. eta …….zenbakidun IFK duen …….enpresaren ordezkari gisa

HONAKOA ADIERAZTEN DUTE

Aldi Baterako Enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela, % …(e)ko eta % …(e)ko partaidetzekin hurrenez hurren, eta …….. jauna/andrea izendatzen dutela kontratuaren ondoriozko eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko behar adinako ahalordedun elkartearen ordezkari edo apoderatu bakar, kontratua azkentzen den arte.

Eta .....n .....(e)ko .....ren ...(e)(a)n egiten dugun adierazpen honekiko adostasuna erakusteko

Izp.:	Izp.:
Enpresaren zigilua	Enpresaren zigilua

IV. eranskina: Proposamen-ekonomikoaren eredua (C gutun-azala)

Nik, ... jaunak (helbidea: ....PK:....., NAN: ....., telefono-zenbakia: ....., eta posta elektronikoko helbidea: .....) prozedura osoa Udalari jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean (edo ..... jauna/andrearen PK:....., telefono-zenbakia: ....., eta NAN edo IFK: ..... -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari gisa), **AGUIko SANEAMENDUA KONPONTZEKO LANAK** kontratatzeko Astigarragako Udalak deitu duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

1) Zerbitzu prezio honetan egiteko konpromisoa hartzen dudala:

lizitazio-prezioa (BEZik gabe)	**EGITEN DUEN ESKAINTZA: PREZIOA BEZik GABE**	Baja zifra absolututan	Baja (%)
75.340,82 euro			

Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabe .....EURO dela

Eskaintza hori lizitazio-prezioari dagokionez, BEZik gabe, ...euroko baja dela, hots, % .....

2.- Ezagutzen ditudala obra-proiektua, Klausula Administratibo Partikularren Plegua eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak, eta horiek guztiak nire gain hartzen ditudala berariaz eta men egiten diedala; konpromisoa hartzen dudala kontratua eskaturiko kontratuan eta polizan eskatzen diren berme osagarriak emateko.

3.- Adierazten dut eskaintzan kontuan hartu direla fiskalitatearen, ingurumenaren babesaren, enpleguaren babesaren, genero-berdintasunaren, lan-baldintzen, lan-arriskuen prebentzioaren eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen arloan indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak.

Sinadura